

**Epe luzerako inplikazio-
eta boto-eskubideei
inguruko politikaren
aplikazioari buruzko
txostena.**

Caja Laboral Gestión, SGIIC, SA
2024KO EKITALDIA

2025EKO MARTXOA

1. SARRERA

Caja Laboral Gestión, SGIIC, SA-k, kudeatzen dituen IKEen aktibo-kudeatzaile eta inbertitzaile instituzional gisa, epe luzerako inplikazio- eta boto-eskubideen inguruko politika garatu du. Politika horren helburua da sozietate kudeatzaileak inbertitzen duen konpainien gobernu korporatiboan behar bezalako inplikazioa izango duela bermatzeko neurriak hartzea, alde batetik, azken bezeroen interesak beste edozein kontsiderazioren gainetik egongo direla ziurtatzeko, eta, bestetik, hurbilketa eta ESG irizpideak partekatzen dituzten konpainietan inbertituz balioa sortzea.

2. BOTO-ESKUBIDEAK BALIATZEA

Irizpide orokor gisa, Caja Laboral Gestión SGIIC, SA-k kudeatutako zorroak osatzen dituzten baloreei dagozkien eskubide politikoak baliatuko ditu honako kasu hauetan:

- baloreak Europar Batasuneko merkatuetan kotizatzen direnean
- jaulkitzailea egoitza soziala Europar Batasuneko estatu kide batean duen sozietate bat bada.

Eraginkortasun- eta proportzionaltasun-irizpideetan oinarrituta, eta arauz gomendatutakoaren ildotik, Kudeatzaileak bere boto-eskubidea gauzatuko du, dela bertaratuz, dela eskuordetzaz, Sozietate horietako Akziodunen Batzar Nagusietan, baldin eta kudeatutako inbertsio-funts guztiek kapitalean partaidetza badute, eta partaidetza horrek honako bi baldintza hauek betetzen baditu:

- Sozietatearen erabakietan eragiteko gaitasuna. Kudeatzaileak kudeatutako inbertsio-funts guztiek Sozietatearen duten zenbatekoa partaidetzako sozietatearen kapitalaren %1 edo handiagoa denean.
- Zorroetako partaidetzaren antzinasuna. Kudeatzaileak kudeatutako funtsen partaidetzaren antzinasuna 12 hilabete edo gehiagokoa denean, botoa ematen den unean.

Bestela, Caja Laboral Gestiónek botoa ez emateko eskubidea izango du, akzio-partaidetza ez delako esanguratsua sozietatearen kapital sozialaren edo zorroetako posizioaren antzinasunaren proportzioan.

3. ONDORIOA

2024ko ekitaldian, Caja Laboral Gestión SGIIC SA-k kudeatutako IKEek balore kotizatueta edo EBko estatu kide batean egoitza soziala duen sozietate batek jaulkitzen dituen tresnetan inbertitutako zenbateko globala ez da partaidetzako sozietatearen kapitalaren % 1era iritsi.

Hori dela eta, Caja Laboral Gestión SGIIC SA-k kudeatutako IKEen multzoaren inbertsioek duten akzio-partaidetzaren garrantzi txikia kontuan hartuta, inbertitzen den sozietate bakoitzaren kapital sozialarekiko proportzioan, Kudeatzaileak ekitaldi honetan ez ditu erabili kudeatutako zorroak integratu dituzten balioei dagozkien eskubide politikoak.

Boto-aholkularitzako zerbitzuak edo proxy advisors zerbitzuak erabiltzeari dagokionez, eta deskribatutako eraginkortasun- eta proportzionaltasun-irizpideak kontuan hartuta, 2024ko ekitaldian ez da horren inguruko zerbitzurik kontratatu.

Balitzko interes-gatazkei dagokienez, ez da gertatu Sozietate Kudeatzaileak edo taldeko beste entitatearen batek merkataritza-harreman garrantzitsurik izan duenik kudeatutako IKEen zorroak osatzen dituzten sozietateekin.

Kudeatzailearen epe luzerako inplikazio- eta kudeatzailearen boto-eskubideei buruzko politika berrikusi ondoren, ondorioztatu da ez dela inolako aldaketarik egin.

Jarraian, Caja Laboral Gestión, SGIIC, SA-k kudeatutako IKEen inbertsio guztien ekitaldia ixteko bost posizio handienek boto-eskubideak egikaritzen dituzten jaulkitzaileetan duten pisua azaltzen da. Bertan, posizio handiena ez dela % 0,03ra iristen egiazta daiteke, eta, beraz, aztertu beharreko balioei dagozkien eskubide politikoak inola ere ez egikaritzea justifikatzen da, ehuneko horrek garrantzi oso txikia duelako.

ISIN_kodea	Deskribapena	Eskudirua/Kapitalizazioa
ES0132945017	TUBACEX SA	% 0,02055
ES0178165017	TECNICAS REUNIDAS SA	% 0,01913
LU1048328220	EDREAMS ODIGEO SL	% 0,01904
ES0105130001	GLOBAL DOMINION ACCESS SA	% 0,01863
ES0183746314	VIDRALA SA	% 0,01862

4. ZORRO DELEGATUAK

Caja Laboral Gestiónek Caja Laboral Pensiones SA, GFP-ren pentsio-funtsen aktiboak kudeatzeko ardura du, bi aldeen arteko kontratuaren arabera.

Era berean, Caja Laboral Gestiónek Euskadiko Pentsioak BGAEen eta Izarpension BGAEen integratutako aurreikuspen-planen aktiboak kudeatzeko ardura du, bi aldeen arteko kontratuaren arabera.

2024ko ekitaldian, Caja Laboral Gestión SGIIC SA-k kudeatutako IKEek, Caja Laboral Pensiones SA-k kudeatutako pentsio-funtsek, Euskadiko Pentsioak BGAEen integratutako aurreikuspen-planek eta Izarpension BGAEk kotizatutako balioetan edo EBko estatu kide batean egoitza soziala duen sozietate batek jaulkitako tresnetan inbertitutako zenbateko osoa ez da iritsi partaidetzako sozietatearen kapitalaren % 1era.

Hori dela eta, Caja Laboral Gestión SGIIC SA-k kudeatutako aktiboak dituzten ibilgailu guztien inbertsioek duten akzio-partaidetzaren garrantzi txikia kontuan hartuta, inbertitzen den sozietate bakoitzaren kapital sozialarekiko proportzioan, Kudeatzaileak ekitaldi honetan ez ditu erabili kudeatutako zorroak osatu dituzten balioei dagozkien eskubide politikoak.

Boto-aholkularitzako edo proxy advisors zerbitzuak erabiltzeari dagokionez, eta, oro har, deskribatutako eraginkortasun- eta proportzionaltasun-irizpideak kontuan hartuta, 2024ko ekitaldian ez da ildo horretako zerbitzurik kontratatu.

Jarraian, Caja Laboral Pensionesek kudeatutako pentsio-funtsen inbertsioen guztizkoaren bost posizio handienek 2024ko ekitaldia ixterako duten pisua azaltzen da. Horien aktiboak Caja Laboral Gestiónek kudeatzen ditu, boto-eskubideak egikaritzen dituzten jaulkitzaileetan, non posizio handiena ez dela % 0,01era iristen egiazta daitekeen.

ISIN_kodea	Deskribapena	Eskudirua/Kapitalizazioa
NL0011821202	ING GROEP NV	% 0,0008
ES0113900J37	BANCO SANTANDER SA	% 0,0007
IT0005239360	UNICREDIT SPA	% 0,0007
DE0008430026	MUENCHENER RUECKVER AG-REG	% 0,0007
DE0008404005	ALLIANZ SE-REG	% 0,0007

Jarraian, bi BGAEetan integratutako aurreikuspen-planetako inbertsioen guztizkoaren bost posizio handien pisua azaltzen da 2024ko ekitaldia ixterako. Horien aktiboak Caja Laboral Gestiónek kudeatzen ditu, boto-eskubideak egikaritzen dituzten jaulkitzaileetan, non posizio handiena ez dela % 0,01era iristen egiazta daitekeen.

ISIN_kodea	Deskribapena	Eskudirua/Kapitalizazioa
NL0011821202	ING GROEP NV	% 0,008
IT0005239360	UNICREDIT SPA	% 0,0077
NL0011794037	KONINKLIJKE AHOLD DELHAIZE N	% 0,0074
FR0000120628	AXA SA	% 0,007
FR0000120271	TOTALENERGIES SE	% 0,0069

